



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**“Urkixote eta euskararen aurkako  
gurutzada”:** buru bakarreko  
etsaia?

*Beñat Garaio*

10-17 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.01>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



## “Urkixote eta euskararen aurkako gurutzada”: buru bakarreko etsaia?

Garaio, B.

*Eusko Ikaskuntzako “e5 egitasmoa” eta Oihaneder Euskararen Etxeko “Hitz Adina Mintzo” hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa*

*benat.garaio@gmail.com*

### **Laburpena**

2017rarte Espainiako EAE-rako ordezkaria izan den Carlos Urkijok “etsai” asko irabazi zituen bere legegintzaldian zehar, batik bat euskalgintzan. Hori dela eta, izenburukoa bezalako hainbat ezizen jaso ditu eta bera izan da PP-ren hizkuntza politikan aurpegi garbiena. Hala ere, artikulu honen bitartez euskalgintzaren okerreko estrategia edota PP-ren polarizazio kanpaina bikaina izan direla ondorioztatu dugu, batik bat soziolinguistikan erabilitako hainbat kontzeptu ezezagunen argitan. Artikulu honen helburuak, horrenbestez, euskalgintzaren jardunean bidelagun izatea eta hizkuntza politika ebaluatzea dira.

Hitz gakoak: soziolinguistika, hizkuntza politika, PP, Carlos Urkijo, hizkuntza eskubideak

### **Abstract**

*Carlos Urquijo, the representative of the Spanish Government in the Basque Autonomous Community, finished his term in January 2017, after “making multiple enemies”, especially within social actors involved in the Basque language revitalization. By using some largely unknown sociolinguistics concepts, this article shows that the pro-Basque movement has wrongly targeted him as the main “enemy”, whereas the People’s Party of Spain has delivered a very effective strategy to use Urquijo as a scapegoat. The aims of this article, therefore, are both to help Basque language activists in their work and evaluate language policy.*

*Keywords: sociolinguistics, language planning, PP, Carlos Urquijo, language rights*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

“Ez dut egin behar ez nukeen ezer egiten. Egungo araudia errespetatu dadin jarduten naiz.” (Carlos Urkijo)<sup>1</sup>

Mariano Raxoik 2011ko Espainiako hauteskundeak gehiengo absolutuarekin irabazi zituenean, sozialisten zortzi urte gorabeheratsuen ostean, gauzak aldatuko zirela aurreikusi zitekeen, eta fronte askotan aldatu gainera. Horietako bat Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Gobernu Zentralak zuen ordezkaria izan zen, Carlos Urkijo laudioarra izendatu baitzuten. Alderdi Popularraren barruan eta erakundeetan hainbat postu izandakoa zen eta hauteman zitzaiokeen ez zela alderdi barruan dauden sektore ezberdinen artean malgu eta eraikitzaileena. Hala ere, gutxik espero zuten hainbesteko indarrez sartuko zenik Urkijo jauna, bost urtu luze hauetan euskal politikagintza baldintzatu eta astindu eta ospe nabarmena bereganatu baititu. Ospe horren islada da, adibidez, “Urkixote”, “euskararen etsaia”, “bakearen etsaia”, eta antzeko ezizenak eskaini izana.

Beharbada ezustean, baina PPK legegintzaldi berrian sostengu politikoak lortzeko abiatu duen estrategia adeitsuago hori dela eta zarata gutxi egin gabe kargugabetu zuen Raxoik Urkijo, eta bere ordezkari Javier de Andrés jarri, Arabako PPKo laukote indartsuaren partaidea, itxuraz elkarlanean iaioagoa, baina euskararen inguruan adierazpen zalapartatsuak egindakoa<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2015/02/07/sociedad/la-cruzada-judicial-de-urquijo>

<sup>2</sup> <http://www.noticiasdealava.com/2015/04/21/araba/de-andres-dice-que-el-uso-social-del-euskera-en-alava-esta-en-torno-al-3>

Kargu eta izen aldaketa hau baliatuko dugu, beraz, Carlos Urkijoren jarduna gertutik aztertu eta euskalgintzak, gizarte-mailakoak eta instituzionalak, jardun honi eman dion erantzuna aztertu eta hainbat hausnarketa partekatuzko, pentsatuz gai honek itxuraz zuen mami eta garrantzia gehiago duela. Halaber, etorkizunean horrelako zerbait gertatuko balitz akademiak eta euskalgintzak elkarlanean irtenbide erresiliente eta indartzaile bat eman beharko lioke eta balio beza lan honek ikuspegia zabaltzeko.

## 2. Marko teorikoa

Baina komeni da hizkuntza eskubideen gaia arreta handiagoarekin aztertzea, izan ere, jardun judizialean berme handiegirik ez duen esparrua da. Ez du alferrik esaten May-k (2011:265) “hizkuntza eskubideak Errauskiñe eskubideak dir[el]a”. Horren harira, Fishman-ek (in May, 2011:270) ere “eskubide atzerakor” bezala ere definitzen zituen hizkuntza eskubideak, ezegonkortasuna sortzen zutelako.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu hizkuntza eskubideen artean bi mota handi daudela, euren baliagarritasunaren arabera (Skutnabb-Kangas 2000: 482-483). Hasteko, giza-hizkuntza eskubideak ditugu (GHE, linguistic human rights) eta hauek dute nazioarteko hitzarmen eta legeetan onarpen gehien, nortasuna, ama hizkuntza eta talde bezala esistitu eta ugaltzeko eskubidea bermatzen baitute. Bestalde, hizkuntza eskubide “soilak ditugu” (HE), hizkuntzen erabilera eta hizkuntza eskubideekin lotura duten eskubideak, oso konstituzio eta marko-legal gutxitan babestuak daudenak.

Horietaz gain, beste sailkapen batzuk ere badaude, eskubide horien hedapenaren eta eraginaren arabera. Hasteko, eskubide positiboak eta negatiboak ditugu, hau da, giza-eskubideen erabiltze horretan inor ez diskriminatua izateko eskubidea, eta talde baten nortasuna garatu edota mantentzeko gutxiengoaren bizimoduan euren ezaugarri eta elementuak erabiltzeko askatasuna, hurrenez hurren (Van der Stoel in May, 2000b).

Bestalde, eta talde hitza aipatu dugunez gero, eskubideak norbanakoenak, kolektiboak, lurraldekoak edota berezitatuko taldeenak izan daitezke, Kymlicka eta Patten-en arabera (2003:26-31 in May, 2010:135). Banaketa honek oraindik ere hainbat gatazka sortzen ditu, izan ere, batzuek ez dute hizkuntza batek (komunitateak) eskubideak dituela sinesten, lurralde batean eskubideak zehazteak ere asimilazioa ekar lezakeela salatzen dute beste batzuk, eta edonola ere, hizkuntza gutxituak biziberritzeko horietako ezer nahikoa ez dela uste dute beste batzuek, hizkuntzen kasuak gutzit baitira anitzak (Arraiza, 2016).

Halaber, hizkuntza ofizialen erregimenak eta norma-eta-egokitzapenaren erregimenak omen daude, hizkuntza eskubideak aitortzeko mekanismo eta arrazoien arabera (May, 2011).

Eskubideen azalpenekin amaitzeko, eta beharbada, hau da interesgarriena lan honetarako, eskubideak sustapenera edo tolerantziara bideratuak izan daitezke (Kloss in May, 2011:266). Erakundeek, sarritan, hizkuntza eskubide batzuk aitortzen dituzte, baina aitortza horren jatorria hizkuntza horiek sustatzeko edo toleratzeko motibazioan oinarritu ohi da. Jakina, erakunde askok aldarrikatuko dute euren konpromezua hizkuntza horren sustapenerako irmoa dela, baina ekintzek eta Urkijo bezalako agintariek hitz-arin horiek zalantzan jartzen dituzte.

Edonola ere, Grin-ek (1994:38), orain hizkuntzen biziberritzearen aspektu ekonomikoan murgildu den hizkuntza-plangintza ebaluatzailea, zioen “egoera ezberdinean dauden hizkuntzei tratamendu berdina emateak ezinbestean dakarrela hizkuntza hedatzailearen eragin eta haztearen igoera. Gutxiengoek hizkuntzek bizirauteko politika asimetrikoak behar dituzte, hizkuntza handiengoek komunitateek euren boterea gutxitu dezaten”. Antzeko modu batean mintzatzen zen Txepetx ere (1987:246), esanez hizkuntza biziberritzeko hizkuntza hedatzaileetako hiztunek euren pribilegio batzuei muzin egin beharko zietela. Hori egingarria ote da? Urkijok botere galtze hori onartuko al luke?

Azken finean, “hizkuntza-kontuak botere-kontuak dira” Chomsky-ren hitzak gurera ekarriz (1979, in May 2000b: 368).

Hizkuntza-politika eta plangintza (HPP) hizkuntzak arautzen dituen ekintzak dira, eta “gizadia bezain aitzinakoa da, jendeak oroimena dugunetik hitz egiteko dugun moduak antolatu eta moldatzeko nahia izan baitu” (Kaplan eta Baldauf, eta Ricento 1997:3, in McCarty, 2013:34). Horrela, batzuek hizkuntza gutxiak biziberritzeko baliatuko duten bitartean, beste batzuek euren hizkuntza mantentzeko, eta batzuetan beste hizkuntza desagertzeko edo azpiratzeko baliatuko dute. Hizkuntza politika horren helburu eta oinarrietan garrantzia handia du hizkuntza ideologiak (Ricento, 2000:4), nahiz eta Sonntag (2000:134) bezalako egileek harreman hau ez duten hain garbi ikusten.

Ideologiei buruz gagozkionez, hizkuntza-nazionalismoa da hizkuntza aniztasunaren mantentzerako arazoetako bat, eliteek euren berezko hizkuntza aldaera sustatzen dutelako (Cooper, 1997 in Moreno Cabrera, 2009:62), agintarien hegemonia politiko, militarra, demografikoa eta ekonomikoa hizkuntza esparrura eramanez (Moreno Cabrera, 2009:93).

Zentzu batean, esan liteke Espainiar Konstituzioa horrelakoa dela, izan ere, hiru mailako hierarkia ezartzen da hizkuntzentzako, non gaztelania, hizkuntza kofizialak eta gainontzeko hizkuntzak doazen hurrenkera horretan, betiere gaztelaniaren hegemonia eta Espainiaren batasuna bermatzeko asmoz (Moreno Cabrera, 2009:197 eta Arzoz, 2008: 145). Banaketa hau indartzeko, gaztelania epaitegi, legedia, estatuko erakunde eta *mass media* delakoak inposatzen dute (Arzoz, 2008:145), eta hori dela eta, Espainia ez da, berez duen hizkuntza aniztasuna kontuan izanda, herrialde eleanitza (Arzoz, 2008:144) eta bere ustezko tolerantzia eta asmo onak duten politika falta eraginkor eta koherenteak itotzen ditu (Arzoz, 2008:110).

Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, euskara kofizial izateak eta berezko hizkuntza izateak ekar zezaketen berme juridiko gehiago, beharbada Katalunian gertatu den bezala, baina legearen zirrikitu horiek ez dira arakatu (Urrutia, 2015) eta euskara baldintzatzen duten EAE-ko legediak Espainiako araudia baino estuagoa dira (Etxeberria, 2015:89). Egile horren ustez, Eusko Legebiltzarrak ez du euskararen berme juridikoa indartu bere jardunaren bitartez, hainbat auzitegi berretsi duten jurisprudentziak euskara kokaleku ahul batean jarri dute eta euskararen legeko 8.3. artikulua Konstituzioaren aurkakotzat jo ondoren ez da gabezia hori estaltzeko ahaleginik egin, arazoa areagoatzea besterik ez eginez (ibidem). Urrutiak dio (2015:25) hizkuntza bat koofiziala den neurrian, “bi hizkuntzen erabilera elkartua ez d[el]a ezinbesteko, bakoitza bere aldetik ofiziala baita” eta “bi hizkuntza ofizialen arteko estatus juridiko formala berdina da” eta. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak 82/1986 epaian 8.3. artikulua Espainiako Konstituzioko 3. Artikulua urratzen zuela ebatzi zuen, modu okerrean gainera (Etxeberria, 2015:89) eta hortik datoz Urkijoren helegite batzuen lasterbideak eta zirrikituak.

2016an onartu zen Udal Legeak hutsune horiek estali zituen eta jauzi kualitatiboa izan ziren euskararentzat hainbat arrazoirengatik (Urrutia, 2016:306):

- Euskara eta gaztelaniaren kofizialtasuna zedarrizten dituelako eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziara moldatzen delako
- Udaletxeen hizkuntza-politikarako eskumena indartu du, euskararen biziberritzerako egitasmoak eraginkorragoak izango diren toki batetik abiatu daitezela ahalbideatuz
- Euskarazko “elebakartasuna” bermatzen delako udalerrri euskaldunenetan, praktika hori legez babestuz
- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) izeneko tresna jarri delako indarrean, erabaki eta plangintzen eragin linguistikoa aztertu eta prebentzio lanak egin ditzan

Legeak hobetzeko hainbat esparru ditu, adibidez, espreski ezarpen zehatzik jaso ez izana udalerrri euskaldunentzat, Urkijok UEMAko udalen aurka egin izanak hauspotu duen arren lege

hau (Urrutia, 2015:65), hau da, “Urkijoren gurutzadak”. Euskararen aldeko ekimenak zalantzan jartzen dituzten egilerik bada, adibidez, López Basaguren, zeinek esaten duen normalizazio planak arazo eta testuinguru errealek egokitu behar direla (2000:32) eta langileei (berezi publikoei) eskatzen zaizkien hizkuntza irizpideak inoiz ezin direla Auzitegi Konstituzionalak eta Goi Auzitegiak esaten duenetik haratago joan (1999:101), baina askoz eraikitzaileagoa eta mesedegarriagoa da maila akademikoan egindako kritikak entzun eta kontuan hartzea, epaitegietako helegite bat jasotzea baino.

### 3. Ikerketaren helburuak eta erabilitako metodologia

Ikerketa honek, abiatu berria denez modu askotan aberastu eta garatu daitekeen arren, hainbat helburu ditu. Lehenik eta behin, bat egiten du Gazzola-ren hausnarketarekin (k.p.), esatean hizkuntza politika ebaluatu beharra dagoela, eta ahal bada, maila zientifiko batetik. Urkijo eta bere helegiteak izan dira hizpide kasu honetan, baina berdin egin liteke Foru Aldundien edo edozein erakundeen kasuan ere. Bestalde, eta ikusita Urkijoren legegintzaldi honek zer nolako jarraipena izan duen euskal gizartean, ikuspegi akademikoa eskaini nahi da lan honen bitartez, atera duen zaratatik informazio eta hausnarketa gehiago ateratzeko. Hirugarrenik, eta Martínez de Lunak eta enparauk esandakoari jarraituz (2013:13), euskal soziolinguistikak sakontasun teoriko falta du eta gure artean orain arte ezezagunak izan diren kontzeptu batzuk aurkeztu eta aplikatu nahi izan dira, euskarazko ikerketa egiten gabiltzan lagun guztien artean gure ezagutza aberastu eta sartzeko. Azkenik, ikusita UEMAko udalerrien egunerokoa mehatxu judizialek baldintzatzen dutela (Urrutia, 2000:31; Etxeberria, 2015), azken bost urte hauetan euskara esparru guztietan erabiltzeko hautu garbia egin duten lagun eta erakundeen kezka nagusia, hau da, Urkijoren helegiteak, maila orokorrago batetik aztertu dira. Era berean, euskalgintzak eskatzen duen paradigma aldaketa honetan (Topagunea, 2015:1) argi printza txiki batzuk igortzeko asmoarekin ere egin da lan hau.

Helburu hauek betetzeko, “Literature Review” izeneko metodologia erabili da (American Psychological Association 2011 in Erize, 2016,115), izan ere, lan akademiko ugari erabili dira ikerketa honen garapenean zehar. Bestalde, komunikabideetako albisteak, erreportaiak eta aktak ere baliatu dira Urkijoren helegiteen jarraipena burutzeko.

### 4. Azterketa

Ez da oso ezaguna, baina bi izan dira azken legegintzaldian EAE-ko politikagintza astindu duten pertsonak: Urkijo bera eta Estatuko Abokatuaren Macarena Olona andrea, batek “lege-urraketa” identifikatu eta besteak salaketa horri berme juridikoa ematen baitzion<sup>3</sup>. Noticias de Gipuzkoak “gurutzada judiziala” izenez deskribatu zuen salaketa-olde hau eta Noticias de Álavak, gainera, gehitu zuen Urkijok erakundeen jarduna instituzionalizatu zuela mila inguru helegiteekin. Kazetari batzuk udaletxe eta auzitegien kolapsoaz ere jardun ziren.<sup>4</sup>

Edonola ere, Urkijo eta Olonak sarrien auzitan jarritako ekintzek sinbolo, euskera, galdeketa eta presoekin zuten zerikusia, nahiz eta euskara izan den, ziurrenik eta datu zehatzagoen faltan, ikamika gehien piztu duena. Adibide batzuk jartzearen, Gobernuaren Ordezkariek Itsasoko desanexio prozesuari<sup>5</sup>, Azpeitiko udalak kaleratutako sorkuntza beka deialdiei<sup>6</sup>, udaletxeek urriaren 12ak atek

<sup>3</sup> <http://www.noticiasdealava.com/2016/09/19/politica/urquijo-judicializa-con-un-millar-de-recursos-la-accion-institucional-vasca>

<sup>4</sup> <http://www.elmundo.es/elmundo/2013/08/23/paisvasco/1377254519.html>

<sup>5</sup> <http://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/4381694/urquijok-helegitea-jarri-dio-itsasoko-desanexio-erreferendumari/>

<sup>6</sup> [http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-07-22/hemeroteca\\_articles/urquijok-helegitea-aurkeztu-du-azpeitiko-udalaren-sorkuntza-bekaren-aurka](http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-07-22/hemeroteca_articles/urquijok-helegitea-aurkeztu-du-azpeitiko-udalaren-sorkuntza-bekaren-aurka)

irekitzeari<sup>7</sup>, Gasteizko Udaletxeak Udalbiltzari diru-laguntza eman izanari<sup>8</sup> eta beste ezeren gaineratik, euskararen normalizaziorako neurriak salatu ditu. Normalean, udalerrak UEMArak sartzea gelditu nahi izan du Ordezkariak, argudiatuz legediak hizkuntza politika udaletxeen menpe ez dagoela esaten duela. Hau honela, besteak beste, Berastegi eta Zerain udalerrien UEMArako sarrera tratatu ditu. Bestalde, eta bereziki hau izan da Urkijok etengabe salatu duena, udaletxeko aktak euskara hutsean bidali izana ere gogorki jarri du auzitan, ugariak izan baitira Amezketak, Beizama, Elgeta, Gaintza, Oiartzun, Oñati eta Usurbil bezalako udaletxeen praktikak zigortzeko saiakerak<sup>9</sup>. Horren aurrean, udalerrak asko babesgabe sentitu dira eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatu dute, honek Urkijo publikoki deitoratzeraino<sup>10</sup>. Babesgabeak sentitu dira udalak euren baliabide eta ezagutzetatik kanpo zeuden epaiketetara bideratzen zituztelako helegite hauek, eta gainera, eremu erdaldunetan kokatutako auzitegien menpe uzten zituzten, erabat. Kinka horretan, EAE-ko auzitegiek emandako erantzuna ez da berdina izan, izan ere, Bilbokoak Urkijoren helegitea babestu zuen argudiatuz udaletxeko aktek “erreprizitate printzipioa” bete behar zutela Euskal Herritik kanpo ulertuak izan zitezkeen; baina aldi berean, Donostiakoak euskarak duen estatus ofiziala lehenetsi zuen, euskara hutseko aktak bidaltzeko praktikak legez (behin-behinekoan) babestuz<sup>11</sup>. Bukatzeko, Urkijok Gipuzkoako Foru Aldundiko euskararen erabilera eta beharrezkotasuna finkatuko zuen plan ofizialari ere helegitea aurkeztu zion, eta plan soil bat bazen ere, argi ikusi zen bere helegiteek edozein izango zutela jomugan, baita Foru Aldundi bat ere<sup>12</sup>.

Zorionez, euskal alderdi abertzaleak elkarlanean aritu dira Urkijoren aurkako fronte batean lanean<sup>13</sup> eta momentu jakin batzuetan Espainiako Gobernuaren Ordezkari postua ezabatzeko eskatu ere egin da<sup>14</sup>. Anjel Lertxundi bezalako pertsonak ezagunak ere (eta beste horrenbeste eragile) altxatu egin ziren egoera honen aurrean, gure (hizkuntza) eskubideak urratzen zituelakoan<sup>15</sup>.

## 5. Ondorioak

Aurreko atalean ikusi da Urkijok, hizkuntza gutxituaren “nolabaiteko elebakartasuna” eskatzen zuten ekimen guztiak geldiarazten saiatu dela; izan aktak, izan euskaldunentzat bakarrik bideratutako deialdi eta erakundeak, izan antzeko egitasmoak. Baina euskara koofiziala dela jakin badakigu eta horrela jaso da gorago ere: berez, legediaren interpretazio malguago eta eskuzabalago batekin, ez litzateke horrelakorik pasatuko eta ez zen ekimen horien bermea zalantzan jarriko. Arazoa da Espainiar Estatuan dauden ideologia batzuek ez dutela batere begi onez ikusten gaztelaniarentzat beharko lukeen espazioa beste hizkuntzentzako izatea, horrek estatuaren bizirautea jartzen baitu kolokan, beraien ustez. Oroitu, bestela, lehen azaldu den Chomskyren aipu horretaz.

Idea hau indartzeko, orain arte oso ezaguna izan ez den teoria bat azalduko da, “*safety zone*” edo segurtasun-eremua deritzona, hain zuzen ere. Beheko irudian ikusten dugun bezala, hizkuntza bat eta bere komunitatea talde handiago batentzako mehatxua edo arriskua bada, orduan “segurtasun-eremua”

<sup>7</sup> <http://www.elcorreo.com/alava/politica/201610/15/urquijo-advierte-ayuntamientos-vascos-20161015135435.html>

<sup>8</sup> <http://www.noticiasdealava.com/2016/01/30/araba/urquijo-recorre-la-subvencion-de-vitoria-a-udalbiltza>

<sup>9</sup> [http://www.euskalherrianeuskaraz.org/udalak/1665/UEMAko\\_beste\\_zazpi\\_udalen\\_kontra\\_je\\_du\\_Urquijok/](http://www.euskalherrianeuskaraz.org/udalak/1665/UEMAko_beste_zazpi_udalen_kontra_je_du_Urquijok/)

<sup>10</sup> <http://paralalibertad.org/el-pnv-se-une-a-bildu-contra-urquijo/>

<sup>11</sup> [http://www.berria.eus/paperekoa/1900/003/001/2015-10-03/euskarazko\\_akten\\_aldeko\\_epaiei\\_helegiteak\\_jartzen\\_hasi\\_da\\_urkijo.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1900/003/001/2015-10-03/euskarazko_akten_aldeko_epaiei_helegiteak_jartzen_hasi_da_urkijo.htm)

<sup>12</sup> [http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara\\_2015-01-10-06-00/hemeroteca\\_articles/urquijo-retoma-la-fijacion-con-gipuzkoa-y-recorre-su-plan-de-promocion-del-euskara-euskara-plana-GFA-urkijo](http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2015-01-10-06-00/hemeroteca_articles/urquijo-retoma-la-fijacion-con-gipuzkoa-y-recorre-su-plan-de-promocion-del-euskara-euskara-plana-GFA-urkijo)

<sup>13</sup> <https://sustatu.eus/1418739431217>

<sup>14</sup> [http://www.berria.eus/albisteak/82885/espainiako\\_ordezkariaren\\_kargua\\_elkarrekin\\_ezabatzea\\_proposatu\\_dio\\_sortuk\\_eajri.htm](http://www.berria.eus/albisteak/82885/espainiako_ordezkariaren_kargua_elkarrekin_ezabatzea_proposatu_dio_sortuk_eajri.htm)

<sup>15</sup> [http://www.berria.eus/paperekoa/1740/022/001/2014-06-06/gutun\\_irekia.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1740/022/001/2014-06-06/gutun_irekia.htm)

delako hori aplikatuko du azken honek eta hizkuntza gutxitu hori bizirauteko ekintzak zapaltzen saiatuko da. Ordea, hizkuntza batek ez badu arriskurik sortzen komunitate edo egitasmo-politiko horren etorkizunerako, adibidez, katalana Balear Uharteetan edo kantonera Txinan (Zhou, 2016), orduan hizkuntza hori babestuko da. McCarty egileak AEB-tako hizkuntza indigenen eta gobernu “zurien” arteko harremana aztertzeke proposatu zuen kontzeptu hau, baina pentsatu liteke “Nazio bat, hizkuntza bat?” ikuspegia bizirik dagoen herrialdeetan erraz aplikatu daitekeela.

Zer ikasten dugu egoera honetatik? Bada, gehienez, Espainiak hizkuntza gutxituekiko duen jarrera eta hizkuntza eskubideen eskaintza mugatutako “tolerantziara bideratutako hizkuntza eskubideak” direla, Kloss-en sailkapen hori gogoratu. Izan ere, tolerantzia baino, sustapena izango balute helburu, orduan Grin-ek eskatutako hizkuntza hedatzaileetako hiztunen “pribilegio galera” hori gertatu beharko litzateke, eta ez dirudi, Urkijoren helegiteak testigu, hori gertatzeko baldintzarik dagoenik momentu honetan.

Halaber, ikusita bi aldeek proposatzen duten etengabeko talka hori, eta kontuan hartuz Euskal Herrian hizkuntzaren norgehiagokan dauden bi muturrek antzeko filosofia dutela jatorrian (Martínez de Luna, 2013:61; Goirigolzarri, 2015:474), gurean hizkuntzek duten izaera gatazkatsua azpimarratzen da. Ruíz-ek zioen (1984) hizkuntzak hiru modutan ikus zitezkeela: arazo gisa, eskubide gisa eta aukera gisa. Zergatik hartzen ditugu normalean lehen bi norabideak eta zergatik azken hori baztertu?

Ez al da bada, inozoegia, pentsatzea hizkuntzak zaratatik ateraz hizkuntza gutxituak errazago egingo dutela aurrera? Azken lan batzuk, tartean EGOD, “Eta hemendik aurrera zer?”, eta Euskararen Txantxangorria ildo horretatik joan dira, eta orokorrean horrela egin dute erakundeek<sup>16</sup>, baina pasa den urtearen ondorean argitaratutako *Treballs de Sociolingüística Catalana* aldizkarian besterik esaten zen. Gatazkaren soziolinguistika deritzogu hizkuntza ukipenak ikuspegi honen bitartez azaltzeko joerari (Marí, 2016:220) eta aipatutako aldizkariko azken alean ikerketa-ildo horren geroaz horrela hitz egin zuen Vilak (2016:203): “ez da gatazkaren ideia baztertu behar, baizik eta ikuspegia apur bat birorientatu behar da hizkuntzan oinarritutako soziolinguistika batetik soziologian, eta hortaz, gizabanakoengan oinarritutako ikuspegietara aldatuz” Hau da, euskara eta gaztelania hitzak gutxiago erabili, eta aztertu dezagun gehiago zein eragin duen komunitate baten eta bestearen arteko harremanak hizkuntza-kontuetan. Hariari jarraik, Vilak gaineratzen du (2016:208) gatazken soziolinguistika oraindik ere erabilgarria dela hizkuntzaren esparru makroak aztertzeke erabiltzen bada, eta ez hiztunen arteko eraginak.

Eta zer egin dugu guk Urkijorekin genuen lehia honetan? Zer nolako erantzuna eman diogu, euskalgintzako jarrera bateratu batetik abiatuta? Bada, orain arte esandako guztiaren argitan ezegokia izan da gure erantzuna, maila mikroan gelditu garenez (Urkijo eta udal ‘txiki koitadu batzuk’) ez dugulako maila makroa (Espainiar Estatuaren hizkuntza ideologiak eragindako hizkuntza politika) ikusi, eta Urkijorekin tematu gara behin eta berriro. Aukera bikaina izan zitekeen elkarlan berriak sortu, sostengu berriak lortu eta erantzun berriak adosteko, baina pertsona bakar batek pizten zituen suak itzaltzen xahutu dira energiak.

Urkijok berak bakarrik antolatu du “gurutzada judizial” hau? Zaila izango da hori jakitea, baina kargua utzi aurretik baliogabetu zituen bere helegiteak<sup>17</sup> eta zaratarik egin gabe joan zen, foko mediatikoa

<sup>16</sup> ikus Marí, 2016:220 eta ondorengo esteka [http://www.berria.eus/paperekoa/3124/030/001/2017-02-01/txori\\_bat\\_da\\_birus\\_bat\\_da\\_ez\\_euskara\\_da.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/3124/030/001/2017-02-01/txori_bat_da_birus_bat_da_ez_euskara_da.htm)

<sup>17</sup> <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2017/01/31/politica/urquijo-retiro-los-recursos-contr-el-euskera-en-octubre>

berarekin eramanez. Are garrantzitsuagoa, kaltea eginez joan da, hau da, euskararen biziberritzerako onuragarriak izan ahal ziren ekimenak gelditu eta euskalgintzaren animoak ozpinduz. Jakina, egon dira erantzun eraikitzaileak eta Urrutia eta Etxeberriaren lanak eta lehen aipatu dugun Udal Lege berri hori dira adibide garbienak, baina euskarak aukera polita galdu du bere komunitatea sendotzeko eta Espainiako ideologiak zalantzan jartzeko.

## 6. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Apirilaren 19tik 21era Hizkuntza Gutxituen Biziberritzearen Lehenengo Nazioarteko Kongresua ospatu zen eta bertan munduko aditu onenentsuenak aditzeko aukera izan zen. Tartean izan zen Teresa McCarty ere, “segurtasun-eremua” teorizatu zuena. Berarekin kontzeptu honen zabalpenaren inguruan mintzatzea interesgarria zatekeen.

Edonola ere, lan honek bi ildo nagusietan izan beharko luke jarraipena, ezbairik gabe. Lehenik, hizkuntza plangintza gertuagotik jarraitzeko proposamen metodologikoak egiten jarraitu beharko luke mundu akademikoak, plangintzan dauden horiek gidatzeko eta jarraitu beharreko norabideak eta ekidin beharreko marra gorriak proposatzeko. Bigarrenik, ikerketa zientifikoei praktikotasuna eman behar zaie, bestela ordenagailuko karpeta batean ahazturik gelditzen dira horrelako lanak, ezinbestean. Kasu honetan, euskalgintza, hiritar eta alderdi politikoen lana sakontasunez jarraitu eta azken hauei aholkatzeko nahia izan beharko luke soziolinguistikak, elkarren beharra baitute eta baitugu.

Iker gazten ikerlari gazte andana izango gara, denak halako denak energiaz beteta, eta maiatzeko hiru egun horietatik abiatuta gure esku egongo da herri eta hizkuntza-komunitate sendo bat izatea, bai ekintzaitzian eta baita honekin estuki lotuta dagoen zientziak eta mundu akademikoak ere.

## 7. Erreferentziak

Arraiza, J.M. (2016). “Language Diversity Speaking to Autonomy: Exploring the Relations between Autonomy and Minority Language Education», *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law*, núm. 66, 105-123. DOI: [10.2436/rld.i66.2016.2840](https://doi.org/10.2436/rld.i66.2016.2840).

Arzoz, X. (2008). 'The implementation of the European Charter for Regional or Minority Languages in Spain' in *The European Charter for Regional Or Minority Languages: Legal Challenges and Opportunities*, O’Riagain, D. (ed.), 83-107 orr. Strasbourg: Council of Europe Publishing.

Erize, X. (2016). “Euskal herritarren portaera linguistikoen m otibo subjektiboen bilakaera” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 99 (2), 113-177 orr..

Etxeberria Bereziartua, H. (2015). “EAEko gehiengo euskalduna duten udalerriak epaitegi erdaldunetan” in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 97. zenbakia, 67-98 orr.

Goirigolzarri, J. (2015). *Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak 1980-2012: Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programen azterketa* (Doktoretza tesia: Deustuko Unibertsitatea), Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Grin, F. (1994). Combining immigrant and autochthonous language rights: a territorial approach to multilingualism. In *Linguistic Human Rights: Overcoming Linguistic Discrimination*, eds. Tove Skutnabb-Kangas, Robert Phillipson and Mart Rannut, 31-48. Berlin: Mouton de Gruyter.

Kymlicka, W. eta Patten, A. eds. (2003). *Language Rights and Political Theory*. Oxford: Oxford University Press.

López Basaguren, A. (1999). “Algunos problemas en torno a la cooficialidad lingüística” in *Jueces para la democracia*, ISSN 1133-0627, 34. zenbakia, 24-33 orr.

López Basaguren, A. (2000) “Lenguas, poderes públicos y función pública” in *Lenguas, política, derechos*, Madrid: Universidad Carlos III (ed.), 323-338 orr.

Marí Mayans, I. (2016). “Conflicte lingüístic i normalització: conceptes vigents per a les polítiques públiques” in *Treballs de Sociolingüística Catalana (TSC)*, 26. Zenbakia, 219-226 orr.



Martínez de Luna Pérez de Arriba, I. eta beste (2013). “Azken urteetako euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea” in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88. zenbakia, 13- 47 orr.

Martínez de Luna, I. (2013). “Euskarak duen *Framing* Berri baten premia asetzeko proposamena”, in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 86. zenbakia, 13-83 orr.

May, S. (2000a). Accommodating and Resisting Minority Language Policy: The Case of Wales, *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 101-128 orr.

May, S. (2000b). Uncommon Languages: The Challenges and Possibilities of Minority Language Rights, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 21:5, 366-385 orr.

May, S. (2010). “Derechos lingüísticos como derechos humanos”. *Revista de Antropología Social*, vol. 19, pp. 131-159. Available at: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3339559>  
(Azken kontsulta: 01/12/2015)

May, S. (2011). “Language Rights: The “Cinderella” Human Right” , *Journal of Human Rights*, 10:3, 265-289 orr.

McCarty, T. (2013). *Language Planning and Policy in Native America: History, Theory, Praxis*, Bristol: Multilingual Matters.

Moreno Cabrera, J.C. (2009). *Nacionalismo lingüístico: una ideología destructiva*, Barcelona: Alianza.

Ricento, T. (2000) (Ed.) *Ideology, Politics and Language Policies. Focus on English*, Philadelphia: John Benjamins

Ruíz, R. 1984. "Orientations in language planning". *National Association for Bilingual Education Journal* 8:15-34. Reprinted in McKay, Sandra Lee, and Wong, Sau-Ling Cynthia eds. 1988. *Language Diversity: Problem or Resource?* New York: Newbury House. 3-25 orr.

Sanchez Carrión “Txepetx”, J.L. (1987). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y la teoría social de las lenguas*. Donostia: Elkar.

Skutnabb-Kangas, T. (2000). *Linguistic Genocide in Education—or Worldwide Diversity and Human Rights?* Mahwah, New Jersey: Lawrence Erlbaum

Sonntag, S.K. (2000) "Ideology and Policy In the Politics of the English Language in North India" in: Ricento, T. (Ed.) *Ideology, Politics and Language Policies. Focus on English*, Philadelphia: John Benjamins, 133-50 orr.

Topagunea (2015). *Berrikasi eta Berrikusi*. Andoain: Topagunea.

Urrutia Libarona, I. (2000). “Udalerrri euskaldunak eta zuzenbidea” in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 34. zenbakia, 31-43 orr.

Urrutia Libarona, I. (2015). “Euskarazko udal jarduerak ba al dute lege babes eraginkorrik? Normalizazio eredu berri baten bila”, in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 95. zenbakia, 31-70 orr.

Urrutia Libarona, I. (2016). “Crónica legislativa del País Vasco. Primer semestre de 2016”, *Revista de Lengua i Dret, Journal of Language and Law*, 66. zenbakia, 2016, 288-306 orr.

Vila i Moreno, F. X. (2016). “Sobre la vigència de la sociolingüística del conflicte i la noció de normalitat lingüística” in *Treballs de Sociolingüística Catalana (TSC)*, 26. Zenbakia, 199-217 orr.

Zhou, L. (2016). “Hegemony and Counter-hegemony in the language campaigns in China” in *Language and Conflict: Politics of Language and Identity across Contexts*, 2016ko maiatzaren 20an: Londresko SOAS Unibertsitatean.